

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1044

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 8koa, Gazteriako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2022. urteko ediziorako onartutako proiektuen zerrenda ezagutzera ematen duena.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko azaroaren 19ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2022. urteko ediziorako proiektuak aurkezteko deia egiten die Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei. Agindu hori 2021eko abenduaren 1ean eman zen argitara EHAAn.

Agindu horren 13. artikuluan xedaturikoa betetzeko, Gazteriako zuzendariak ebazpena eman du 2022ko otsailaren 3an. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2022. urteko ediziorako proiektuak onartu ditu.

Gazteriako zuzendariaren ebazpenaren berri emango zaie banan-banan interesdun guztiei. Horrez gain, aipatutako aginduaren 13. artikuluan xedaturikoari jarraituz, onartu diren proiektuen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, zabalkunde osoa izan dezaten.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2022. ediziorako onartu diren proiektuen zerrenda (ikus eranskina), zabalkunde osoa izan dezan. Proiektu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek aurkeztu dituzte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak 2021eko azaroaren 19an emandako Aginduaren babespean (EHAA, 2021eko abenduaren 1ekoa).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 8.

Gazteriako zuzendaria,
AGURTZANE LLANO CUADRADO.

2022ko martxoaren 3a, osteguna

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN 2022KO «AUZOLANDEGIAK» PROGRAMARAKO ONARTU DIREN PROIEKTUAK

Eskaera egin due entitatea	Auzolandegiaren proiektua	Auzolandeg. non	LH	Lan-mota	Puntuak guztira	Onartutako txanda kopurua
Arraia-Maeztuko Udala	Berreskurapen arkeologikoa Korresko San Ildefonso asfaltoen fabrikari	Maeztu	Araba	Arkeologia eta ondare industriala berreskuratzea	53	1
Laudioko Udala	Santa Cruz de Gardeako ermitan proiektatutako auzolandegian indusketa arkeologikoa, kontrola eta jarraipena	Laudio	Araba	Ondare historikoa berreskuratzea eta Ingurumena	61	1
Asociación Cultural Hazian Kultur Elkarte	Sopuertako: Mugikortasun jasangarria sustatuz auzoak lotzen	Sopuerta	Bizkaia	Ingurumena	63	1
Lekeitioko Udala	Nagusiekin dinamizazioa Uribarren Abaroa egoitzan	Lekeito	Bizkaia	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	61	2
Urremendi Landa Garapen Elkarte	Murutako dinamitako kargategiaren ingurua berreskuratzea – Dinamitze	Murueta	Bizkaia	Ondarea berreskuratzea	71	2
Muxikako Udala	Muxikako Auzolandegia	Muxika	Bizkaia	Ondare berreskurapena, ingurumena	62	1
Tendel Elkarte	Otxarkoagako Auzolandegia	Bilbao	Bizkaia	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	67	1
Alonsotegiko Udala	Fuente del Oro – Urreituri	Alonsotegi	Bizkaia	Ondare berreskurapena, ingurumena	59	1
Erandioko Udala	Martiartu inguruko ondare historikoa eta naturala berreskuratzea	Erandio	Bizkaia	Ondare historiko eta naturalaren berreskurapena	59	1
Lemoako Udala	Lemoatxa 1937	Lemoa	Bizkaia	Recuperación del patrimonio	65	1
Bergarako Udala	Belaunaldi arteko trukaketa Mizpirualde Egoitzan	Bergara	Gipuzkoa	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	61	2